

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ERAKUNDE AUTONOMO, ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKO ETA SOZIJETATE PUBLIKOEN KONTUEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA-2008.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeen Administrazioaren 2008ko ekitaldiaren fiskalizazioa mamitu du, zeinak Erakunde Autonomoak, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoak eta EA Eren partaidetza % 50ekoa baino handiagoa duten Sozietate Publikoak besarkatzen baititu. Txostena Osokoaren kideen gehiengoak onetsi du, nahiz kideetatik hiruk desadostasunezko boto partikularra egin duten.

Lanaren mamia izan da Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Erakundeak diru publikoen kudeaketan indarreko legedia zein mailatan bete duen egiaztatzeko azterketa mugatua egitea eta inbertsio, ondasun eta zerbitzu eta langileria kontratatzean legezotasuna bete izanaren azterketa mugatua egitea ondoko enpresa erakunde publiko eta enpresetan:

- Energiaren Euskal Erakundea (EEE)
- Euskal Trenbide Sarea Erakundea
- EJE, S.A.
- Euskal Telebista, S.A. (ETB,S.A.)
- Eusko Trenbideak, S.A.
- IHOBE, S.A.
- Itsasmendikoi, S.A.
- Neiker, S.A.
- Parke Teknologikoa, SA
- ISEB, S.A.
- Sprilur, S.A.
- VISESA
- Uraren Euskal Agentzia (URA)

Epaitegiak txosteneko ondorioen atalean inbertsioak egin eta ondasun eta zerbitzuen erosketen espedienteetan batetik, eta langileen kontratazioen espedienteak aztertzean, bestetik, azaleratu diren akats nagusiak azaleratu ditu.

Sozietate publikoen eta enpresa erakundeen kasuan, Administrazio Publikoen Kontratuen Legeak agintzen dituen eskakizunak betetzeari dagokionez azaleratu diren hutsak ia gehien bat publizitate eta lehia ezari dagozkio; baita, DOUEn lizitazio iragarkien nahitaezko argitalpena ez egin izana. Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Erakundea aztertzean urteanitzeko gastu konpromisoa zuten esleipenak azaleratu dira eta horietan ez da egiaztatu urteanitzeko krediturik badela. Gainera, Osakidetzako Artekaritza Zerbitzuak jaulkitako txostenak berrikustean, publizitate eta lehiarik gabeko hainbat kasu azaleratu dira, kontratazioaren xedea zatikatu izanaren ondorioz.

Sozietate publikoek langileen kontratazioa nola gauzatu duten berrikustean azaleratu da hainbat hautaketa prozesu ez direla berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzen direla bermatuta izapidetu.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz.

Amaitzeko, txostenari hainbat eranskin argigarri txertatu zaizkio eta desadostasunezko boto partikularra osotasunean.